



# ADIKZIOEI BURUZKO EUSKADIKO INKESTA, 2017

## Psikofarmakoen eta substantzia dopatzaileen kontsumoari buruzko monografikoa<sup>1</sup>

### Laburpena

#### 1. Azterlanaren justifikazioa

Psikofarmakoak nerbio-sistema zentralaren mailan diharduten sendagai-multzo bat dira, pentsamenduan, pertzepzioan, afektuan, iratzarri-egoeran eta jokabidean aldaketak eragiten dituztenak. Normalean ahotik kontsumitzen dira, hainbat tamaina, formatu eta koloretako konprimatuen edo pastillen bidez, baina zain barnetik ere eman daitezke.

Sendagai hauek estresa, tristura, gaixotasun fisiko arinak edo lo egiteko eragozpenak dituzten pertsonen agindu ohi zaizkie. Luzaroan kontsumitzeak mendekotasun-probabilitatea handitzen du, batez ere alkohola, beste droga batzuk edo beste sendagai batzuk maiz kontsumitzen dituzten pertsonengan, baita nortasun-nahasmenduak dituzten pertsonengan ere.

Psikofarmakoekiko mendekotasunari “adikzio isila” ere esaten zaio, eta mendekotasun fisikoa, kognitiboa eta jokabidezkoa eragin ditzake. Psikofarmakoek beste substantzia batzuetatik bereizten dituzten zenbait ezaugarri dituzte:

- Lehenik eta behin, heroina edo kokaina bezalako substantziak ez bezala, psikofarmakoak medikuntzako profesionalak agindu ohi dituzte, eta haien ikuskaritzapean kontsumitzen dira. Alabaina, agindu horrek autokontsumoa eta legez kanpoko saltokietan merkaturatzea ekarri ohi du, eta, hori dela-eta, zaila gertatzen da gai hauek neurritz kanpo edo kontrolik gabe kontsumitzen dituzten pertsonen kopurua kuantifikatzea.
- Bigarrenik, gainerako guztiak baino 15-20 urte beranduago hasten dira droga hauek batez beste hartzen; kontsumitzen hasten diren pertsonak, beraz, batez beste, helduaroan hasten dira.

---

<sup>1</sup> Monografiko honek bereizirik lantzen ditu psikofarmakoen gaia eta substantzia dopatzaileak.

- Hirugarrenik, gainerako substantziak ez bezala, droga hauen kontsumoa nabarmen handiagoa da emakumezkoen artean. Azalpen posibleen artean, nabarmentzekoa da emakumeek gizonak baino maizago egiten dituztela kontsultak ondoez, antsietate eta depresioagatik, eta gizonak, berriz, substantzien abusuak eragindako nahasmenduen gaineko kontsultak egiten dituzte gehienbat. Honako hauek dira literatura zientifikoak nabarmentzen dituen faktore esplikatzaileak: faktore biologikoak (genetikoak, endokrinoak, etab.), faktore soziokulturalak (estereotipoak, genero-rolak, sozializazioa, etab.) eta faktore estrukturalak (aldeak okupazio/langabezia mailetan, ordaindutako lana/etxekoa, zaintza-lanak, etab.). Halaber, deskribatu da laguntza bilatzeko joera handiagoa dagoela emakumeen artean gizonen artean baino, baita diagnostikoaren maiztasun handiagoa, psikofarmako gehiegi agintzea eta medikalizazio handiagoa ere.

Psikofarmakoez gain, kirol-errendimendua areagotzen duten substantzia dopatzaileen kontsumoa ere aztertzen du lan honek. Kiroleko dopinari dagokionez, debekatutako substantziak kontsumitzea edo kirol-errendimendua artifizialki areagotzeko edo muskulu-masa handitzeko baimendu gabeko metodoak erabiltzea da, eta hori kirol-arauen aurkako ekintza da.

Mundu mailako erregulazioaren esparruan, Dopinaren Aurkako Munduko Kodea – Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak koordinaturik– nazioarteko kirol-mugimenduak nahitaez bete behar dituen arau eta gidalerroek osatzen dute, eta ezinbestekoa da dopinaren aurkako borrokan diharduten erakunde publikoentzat. Kode honek zein diren arau-hausteak definitzen du, eta orobat erabakitzen du zein diren substantzia eta metodo debekatuak.

Euskadin, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeak xedapen orokorrak ezartzen ditu, eta bertan zerrendatzen dira inplikaturako pertsonen eta erakundeen erantzukizunak eta eskubideak, dopin-kontrolak, dopinaren diziplina- eta administrazio-araubide zigortzailea, prebentzio-neurriak, dopinari buruzko datuen araubidea, nazioarteko kirol-federazioak eta nazioartean kirol-jarduera arautzen duten gainerako erakundeak.

Adikzioen Inkestak eremu honetan duen indargune nagusietako bat da biztanleria-mailako kontsumoari buruzko datuak ematen dituela; izan ere, argitaratutako datuak eta egindako azterlanak kirolarien arteko kontrolen emaitzei buruzkoak dira gehienak.

Monografiko honek, oro har, modu espezifikoan eta bereizirik aztertzen du 15 eta 74 urte bitarteko euskal biztanleriaren talde sozialen psikofarmakoen eta substantzia dopatzaileen kontsumoa, Adikzioen Euskadiko Inkestaren emaitzen bidez.

## 2. Helburuak eta metodologia

Ikerketaren helburu nagusia zen psikofarmakoen eta substantzia dopatzaileen prebalentziak eta kontsumoaren jarraibideak deskribatzea eta aztertzea, eta orobat deskribatzea eta aztertzea talde sozialen arabeko banaketa, bilakaera, kontsumitzen hasteko adina, kontsumitzaile gehienen profila eta bilakaera. Halaber, lanaren xedea zen gai hauek nola eskuratzen diren aztertzea –errezetarekin edo errezetarik gabe–, psikofarmako motaren arabera (lasaigarriak, sedanteak eta somniferoak, alde batetik, eta antidepressiboak, bestetik) psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzietan dauden aldeak analizatzea, baita psikofarmakoen kontsumoak eta gai hauen irisgarritasunak dakartzan arazoei buruz herritarrek duten pertzepzioaren berri jakitea ere.

Informazio-iturria 2017. urteko Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta izan zen, zeina Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiten baitu —lehen Euskadi eta Drogak Inkesta deitzen zitzaien—, eta Euskal Estatistika Planaren parte baita (2014/2017). Langile trebatuek etxean egiten duten inkesta bat da, eta helburua 15 eta 74 urte bitarteko EAEko biztanleen arteko hainbat adikzioaren prebalentzia ezagutzeko da —substantziarekin nahiz substantziarik gabe—, baita adikzioarekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko pertzepzioaren eta balorazioaren berri jakitea ere. 1992ko lehen edizioaz geroztik, hamabi edizio egin dira, eta, gaur egun, hauxe da adikzioaren arloko Estatuko inkestarik zahar eta sendoenetako bat.

Helburuak lortzeko bi analisi-metodo erabili dira, elkarren osagarriak.

- Lehenik, psikofarmakoen eta substantzia dopatzaileen kontsumoarekin lotutako aldagai nagusien azterketa deskribatzaile bat egin da, baita droga horien kontsumoak eta irisgarritasunak ekar ditzaketen arazoei buruz herritarrek duten pertzepzioarena ere. Kontsumoaren prebalentzia orokorreki dagokienez (bizitzan zeharreko kontsumoa, azken 12 hilabeteetako, azken 30 eguneko eta eguneroko kontsumoa), adinaren arabera estandarizatutako prebalentziak kalkulatu dira, metodo zuzenarekin eta 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoari (EIN) dagokion EAEko biztanleria orokorrarekin. Analisiak sexuaren arabera bereizita egin dira, eta prebalentzia orokorren kasuan, baita ikasketa-mailaren arabera ere.
- Bigarrenik, analisi deskribatzailea azalpen-analisi batekin osatu da, azken 12 hilabeteetan psikofarmakoen kontsumoan (errezetarekin nahiz errezetarik gabe) interesgarriak diren aldagaiek duten eragina ezagutu ahal izateko. Azterketa hau egiteko, lehen urrats batean, Khi-karratuko proba erabili da, % 95eko esangura-mailarekin ( $\alpha \geq 0,05$ ). Bigarren urrats batean, azken 12 hilabeteetan errezetarekin nahiz errezetarik gabe egindako psikofarmakoen kontsumoaren *Odds Ratio* (OR) direlakoak kalkulatu dira, erregresio logistikoko eredu bidez, sexuaren, ikasketa-mailaren eta adin-taldearen arabera estratifikaturik. Sexuaren eta ikasketa-mailaren kasuan, erregresio-ereduak adinaren arabera doitu dira, aldagai hori nahasketa-faktore gisa kontrolatu ahal izateko.

### 3. Psikofarmakoen kontsumoaren gaineko emaitza nagusiak

#### 3.1. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, eskuratzeko moduaren eta motaren arabera, sexua, adina eta ikasketa-maila gogoan hartuta


2017an, Euskadiko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 28,7k –477.757 pertsonak– adierazi zuten psikofarmakoren bat kontsumitu zuela bizitzan zehar, % 15,4k azken 12 hilabeteetan – 255.638 pertsona–, eta hamarretik batek azken 30 egunetan (% 10,4) –173.517 pertsona–.

Kontsumoaren prebalentzia handiagoa zen emakumezkoen artean gizonzkoen artean baino. 15-74 urteko gizonen % 20,8k adierazi zuten bizitzan zehar psikofarmakoren bat kontsumitu zuela, % 11,0k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuela eta % 8k azken 30 egunetan. Adin bereko emakumeen kasuan, % 36,2k adierazi zuten noizbait kontsumitu zuela bizitzan, % 19,5ek azken urtean kontsumitu zuela eta % 12,6k azken hilabeteetan.

Kontsumitutako psikofarmako motaren arabera, lasaigarrien, sedanteen edo somniferoen kontsumoaren prebalentzia handiagoa zen antidepresiboen kontsumoaren prebalentzia baino. Biztanleriaren % 27,2k lasaigarriak, sedanteak edo somniferoak kontsumitu zituen noizbait nerbioak edo antsietatea baretzeko edo lo egin ahal izateko, % 14,3k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuten, eta % 9,7k azken 30 egunetan. Depresioaren sintomak tratatzeko medikamentuen kasuan, Euskadin hamar pertsonatik batek esan zuten halako medikamentuak erabili behar izan zituela bizitzako uneren batean (% 9,8), % 5,3k azken urtean eta % 3,9k azken hilabeteetan.

Psikofarmakoak eskuratzeko moduari dagokionez, herritar gehien-gehienek medikuntzako profesional batek aginduta kontsumitu zituzten. Hala ere, Euskadiko biztanleen % 2,4k onartu zuten mediku-errezetarik gabe kontsumitu zituela bizitzako uneren batean lasaigarriak, sedanteak eta/edo antidepresiboak; % 1,0k soilik kontsumitu zituen azken urtean, eta % 0,5ek baino gutxiagok azken hilabeteetan.

1. koadroa. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, errezeta medikoarekin eta gabe, eta motaren arabera. 2017 (%)




Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

Urduritasuna, antsietatea lasaitzeko edo lo egin ahal izateko sendagaiak erabili zituzten emakumeen ehunekoa handiagoa zen gizonena baino, bai medikuntzako profesional batek agindutako medikazioaren kasuan, bai automedikazioaren kasuan. Gizonen % 19,6k lasaigarriak eta/edo somniferoak kontsumitu zituen noizbait mediku-errezetarekin, eta emakumeen % 32,0k  $-0,6$ ko ratioa. Azken 12 hilabeteetan, hamar gizonetik batek mota honetako botikak kontsumitu zituen (% 10,6), eta emakumeen % 16,5ek  $-0,6$ ko ratioa. Azkenaldiko kontsumoaren kasuan, txikixeagoak ziren sexuaren arabera aldeak  $-0,7$  ratioa, nahiz eta emakumeen kontsumoaren prebalentzia (% 10,7) gizonena baino altuagoa izan oraindik ere (% 7,8). Mediku-errezetarik gabeko lasaigarrien, sedanteen eta/edo somniferoen kontsumoaren prebalentzia txikia izan arren, nabarmenagoak ziren sexuaren arabera aldeak. Bizitzan zehar noizbait kontsumitzeari dagokionez, substantzia horietako bat agindurik gabe kontsumitu zuten emakumeen ehunekoa (% 3,2) 2,5 aldiz handiagoa zen modu berean kontsumitu zuten gizonena baino (% 1,3). Azken urteko kontsumoaren kasuan, minoritarioa izan arren, gizonena (% 0,4) halako hiru zen lasaigarriak/sedanteak eta somniferoak mediku-errezetarik gabe kontsumitzen zituzten emakumeen prebalentzia (% 1,5).

Antidepressiboen kontsumoaren prebalentzia baxuagoa zen lasaigarrien eta somniferoen kasuan baino. Hala ere, sexuaren arabera aldeak ere nabarmenak ziren. Izan ere, errezeta bidezko antidepressiboen emakumeen kontsumoaren prebalentzia bikoitza zen gizonen kontsumoarenarekin alderatuta, bai bizitzan zeharreko kontsumoan, bai azken urtean eta bai azken 30 egunetan.

**2. koadroa. Psikofarmakoaren kontsumoaren prebalentzia orokorrak, errezetarekin eta errezetarik gabe, 2017 (%). Biztanleria osoaren emaitzak, sexuaren arabera bereizita. Adinaren arabera estandarizatutako datuak.**




\* Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta eta INEren 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoa.

Lasaigarrien, sedanteen eta/edo somniferoen errezeta medikoarekiko kontsumoaren prebalentziak gora egiten zuen pixkanaka adinarekin, eta % 21,7ra iristen zen 65 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean. Antidepressiboen kontsumoak ere gora egiten zuen adinean aurrera egin ahala, nahiz eta prebalentziarik handiena 55 eta 64 urte bitartekoen artean erregistratzen zen (% 10,4), eta 65 urtetik gora apur bat behera egiten zuela zirudien.

2017an, handiagoa zen emakumeen artean, adin-talde guztietan, lasaigarrien, sedanteen eta/edo somniferoen mediku-errezetarekiko kontsumoaren prebalentzia. Gainera, gizonen eta emakumezkoen arteko kontsumo-aldeak bereziki garrantzitsuak ziren adineko pertsonen artean. 65 eta 74 urte bitarteko gizonen % 16,0k adierazi zuen lasaigarriak edo somniferoak kontsumitu zituela, medikuaren errezetarekin, azken 12 hilabeteetan. Adin bereko emakumezkoen artean (65-74 urte) medikamentu horien kontsumoaren prebalentzia hamar ehuneko-puntu handiagoa zen, eta % 26,6ra iristen zen –0,6 zen gizon/emakume ratioa–.

**3. koadroa. Psikofarmakoaren errezetarekiko kontsumoaren prebalentzia orokorrak eta motak azken 12 hilabeteetan, 2017 (%). Biztanleria guztiarentzako emaitzak, eta sexuaren eta adinaren arabera berezita**




Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Ikasketa-mailaren araberako kontsumo-prebalentziak eredu desberdinak erakusten zituzten, zer bidetatik eskuratzen ziren lasaigarriak, sedanteak eta/edo somniferoak. Biztanleriaren ikasketa-mailak behera egin ahala, gora egiten zuen bizitzan noizbait eta azken 12 hilabeteetan sendagai hauek mediku-aginduaren bidez kontsumitzearen prebalentziak. Ikasketa-mailaren araberako patroia hori argia zen bizitzan noizbait, azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan kontsumitu zuten emakumeen kasuan, eta azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuten gizonen kasuan.

Lasaigarriak, sedanteak eta/edo somniferoak mediku-errezetarik gabe kontsumitzearen kasuan, eredu alderantzizkoa zen: kontsumoaren prebalentziak gora egiten zuen biztanleriaren ikasketa-mailak gora egin ahala, bai azken 12 hilabeteetan egindako kontsumoan, bai azken 30 egunetan egindakoan.

**4. koadroa. Lasaigarrien, sedanteen eta/edo somniferoen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, errezeta medikoarekin eta gabe, 2017 (%). Biztanleria osoarentzako emaitzak, sexuaren eta ikasketamailaren arabera berezita. Adinaren arabera estandarizatutako datuak**



\* Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta eta INEren 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoa.

2017ko inkestaren azken edizioko emaitzetan oinarrituta, psikofarmakoren baten kontsumoa – izan lasaigarria, sedantea, somniferoa edo antidepresiboa–, bizitzan noizbait egina, % 36,2koa zen emakumeen artean eta % 20,8koa gizonen artean –0,6 ratioa–. Azken 12 hilabeteetan, hamar gizonetik batek kontsumitu zuen (% 11,0) eta hamar emakumetik ia bik (% 19,5) –0,6 ratioa–. Azkenik, azken 30 egunetan kontsumoa % 8,0koa zen gizonen artean eta % 12,6koa emakumezkoen artean –0,6 ratioa–.


Errezeta medikoarekiko psikofarmakoen kontsumoaren kasuan, mantendu egiten ziren sexuaren araberrako aldeak. Emakumeen % 18,3k eta gizonen % 10,8k psikofarmakoren bat kontsumitu zuten errezeta medikoarekin azken 12 hilabeteetan –0,6ko ratioa–. Euskadiko emakumeek gizonen baino % 89 aukera gehiago zuten psikofarmakoak errezeta medikoarekin kontsumitzeko azken 12 hilabeteetan [OR: 1,89 (KT % 95 1,88-1,91)].

Neurri txikiagoan izanda ere, psikofarmakoen kontsumoa handiagoa zen emakumezkoen artean gizonen artean baino. Farmako hauek bizitzan noizbait mediku-agindurik gabe kontsumitu dituztela adierazten zuten emakumeen ehunekoak (% 3,2) gizonena baino 2,5 aldiz handiagoa zen (% 1,3). Alde horiek gora egin dute azken 12 hilabeteetako kontsumoaren kasuan. Azken 12 hilabeteetan emakume kontsumitzaileen proportzioa (% 1,5), mediku-

errezetarik gabe, handiagoa izan zen gizonen artean baino (% 0,4). Izan ere, emakumezkoek ia lau aldiz aukera handiagoa zuten azken urtean psikofarmakoak mediku-errezetarik gabe kontsumitzeko gizonaek baino [OR: 3,91 (KT % 95 3,76-4,06)].

**5. koadroa. Biztanleria osoaren banaketa, azken 12 hilabeteetako psikofarmakoren baten kontsumoaren arabera, modu konbinatuan (errezeta medikoarekin edo errezetarik gabe), sexuaren arabera. 2017 (%).**

**Adinaren arabera estandarizatutako datuak.**



\* Psikofarmakoen kontsumo konbinatua: lasaigarriak, sedanteak, somniferoak eta/edo antidepressiboak.

Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta eta INEren 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoa.


### 3.2. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera

Bilakaera-datuak erakusten zutenez, mediku-aginduz bizitzan noizbait eskuraturiko psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak gora egin zuen 15-74 urteko Euskadiko biztanleen artean, % 19,9tik % 27,6ra, 2012 eta 2017 artean. Gorakada hori nabarmena zen bai gizonen kasuan –% 13,9tik % 20,4ra–, bai emakumeen kasuan –% 26,7tik % 34,4ra–. Psikofarmakoen azken 12 hilabeteetako kontsumoaren prebalentziak ere gora egin zuen apur bat inkestaren azken edizioan: 2012an % 11,3 ziren, eta 2017an, berriz, % 14,7. Gizonen artean, % 7,0tik % 10,8ra igo zen, eta emakumeen artean, % 16,3tik % 18,3ra. Azken hilabeteetako kontsumo-prebalentziak gutxi gorabehera egonkor jarraitzen zuen, aldaketa handirik gabe 2008az geroztik, nahiz eta azken edizioan pixka bat gora egin zuen gizonen artean –% 5,2tik % 8,0ra–, eta behera emakumeen artean, % 13,9tik % 12,0ra.

Errezetarik gabeko kontsumoaren kasuan, bilakaera-datuak egonkor mantendu ziren emakumeen artean inkestaren azken bi edizioetan. Gizonen kasuan, bereziki nabarmentzen zen kontsumoaren prebalentziak behera egin zuela azken hilabeteetan eta azken urtean, % 0,5etik beherako zifrekin.



**6. koadroa. Psikofarmakoren baten kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera, errezetarekin eta errezetarik gabe, sexuen arabera, 2006-2017 (%). Adinaren arabera estandarizatutako datuak.**



\* Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2006-2017 eta iNEn 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoa.

### 3.3. Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko adina

2017an, psikofarmakoren bat kontsumitzen hasteko adina 40 urte ingurukoa zen batez beste (38,2 urte gizonetan eta 40,6 emakumeetan). Alabaina, hasiera-adin hori nabarmen aldatzen zen farmakoa eskuratzeko bidearen arabera. Hain zuzen ere, psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzen hasteko adina (34,5 urte, batez beste) baxuagoa zen errezetarik gabeko farmako mota hori lehen aldiz kontsumitzen hasteko adina baino (40,0 urte, batez beste).

Gizonek ziotenez, emakumeak baino gazteagoak zirela hasi ziren psikofarmakoren bat kontsumitzen, bai mediku-errezetarekin (38,4 urterekin gizonen kasuan, eta 40,9 urterekin emakumeen kasuan), bai agindurik gabeko psikofarmakoen kasuan (32,2 urterekin gizonen kasuan, eta 35,6 urterekin emakumeen kasuan). Mediku-errezetarik gabeko kontsumoari dagokionez, lehen kontsumoaren adina, batez beste, 40,9 urtekoa zen gizonen artean, eta 35,6 urtekoa emakumeen artean. Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adina – errezeta medikoarekin nahiz errezetarik gabe– atzeratu egiten zen biztanleriaren adinak gora egin ahala eta ikasketa-mailak behera egin ahala.

**7. koadroa. Psikofarmakoen (lasaigarriak, sedanteak, somniferoak edo antidepressiboak) lehen kontsumoaren batez besteko adina, eskuratzeko bidearen, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2017**

	Errezeta medikoarekin	Errezeta medikorik gabe
Hartzen hasteko batez besteko adina	40,0	34,5
Sexua		
Gizonezkoak	38,4	32,2
Emakumezkoak	40,9	35,6
Adina		
15-24	17,3	16,3
25-34	23,9	25,2
35-54	34,2	33,8
55-74	50,6	46,6
Ikasketa-maila		
Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntzako ikasketak	44,9	39,2
Bigarren mailako ikasketak	38,1	35,0
Unibertsitate-mailako ikasketak	36,9	31,9


Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

### **3.4. Irisgarritasuna eta pertzepzio soziala Euskadin psikofarmakoen kontsumoen inguruan**

Lehenik eta behin, Euskadin hamar pertsonatik seik (% 57,4) uste zuten mota horretako psikofarmakoak hilean behin kontsumitzeak osasun-arazo gutxi edo batere ez zekarrela, eta bestelako arazorik ere ez. Bigarrenik, lau pertsonatik batek baino gehixeagok arazo gutxi edo batere ez zioten egotzen astean behin-hiru bitartean substantzia hauek kontsumitzeari (% 26,7). Hirugarrenik, hamarretik batek (% 10,5) uste zuen lasaigarriak, sedanteak edo somniferoak egunero edo ia egunero hartzeak ez zekarrela arazorik, edo arazo gutxi zekarrela.

Handia zen bestalde psikofarmakoen eguneroko kontsumoak, beste substantzia batzuen kontsumoaren aldean, nahiko arazo edo arazo asko dakartzala uste zuten Euskadiko biztanleen ehunekoa (% 82,3). Psikofarmakoen kontsumoari egotzitako larritasuna –egotzitako arazo bidez neurtua– tabako-pakete baten eguneroko kontsumoaren (% 97,7k nahiko arazo edo arazo asko eragiten dituela uste zuen), egunean 5-6 kaña edo kopa hartzearen (% 94,1) eta hilean behin edo gutxiagotan kokaina kontsumitzearen (% 84,0) atzetik baino ez zegoen. Psikofarmakoak astean behin kontsumitzeari dagokionez, substantzia horiek kontsumitzeak arazo asko dakartzala uste zutenen ehunekoa (% 25,0) beste substantzia batzuen kontsumoarekin lotutako arazoaren pertzepzioa baino nabarmen txikiagoa zen.

**8. koadroa. Euskadiko biztanleria osoaren banaketa, gogoan hartuta psikofarmakoek kontsumo-jarraibide desberdinek eragin ditzaketen arazoak\*. 2017 (%)**



\*Arazoei buruzko iritzia, izan osasun-arazoak edo beste edonolakoak.


Oharra: psikofarmakoek kontsumoak lasaigarri, sedante edo somnifero baten kontsumoari egiten dio erreferentzia.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Hamar pertsonatik zazpi kasik (% 66,5) uste zuten Euskadin 2017an lasaigarriak, sedanteak edo somniferoak mediku-errezetarik gabe 24 orduko epean lortzea zaila (% 24,2) edo ia ezinezkoa (% 42,3) gertatuko zitzaizela. Kontrako ikuspegitik, lau pertsonatik batek (% 24,4) uste zuten nahiko erraza edo oso erraza dela horrelako substantziak lortzea.

Beste substantzia batzuei dagokienez, psikofarmakoak mediku-errezetarik gabe lortzea nahiko erraza edo oso erraza zela uste zutenen ehunekoa (% 24,4) anfetaminen edo speedaren (% 29,5), kokainaren (% 30,5) eta kalamuaren (% 51,6) kasuen atzetik zegoen. Halaber, psikofarmakoak errezetarik gabeko eskuratzea errazagoa zen MDMA, estasia edo pilulak (% 24,1), haluzinogenoak (% 20,3) edo heroina (% 13,3) eskuratzea baino.

**9. koadroa. Euskadiko biztanleria osoaren banaketa, 24 orduko epean hainbat substantzia lortzeko hautemandako zailtasun-mailaren arabera. 2017 (%)**



Oharra: Psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzeak lasaigarri, sedante edo somniferoren bat agindu medikurik gabe kontsumitzeari egiten dio erreferentzia.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

## 4. Substantzia dopatzaileen kontsumoaren gaineko emaitza nagusiak

### 4.1. Substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentzia orokorrak

2017an, Euskadiko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 2,8k –46.674 pertsonak– adierazi zuen kontsumitu zuela bizitzan noizbait substantzia dopatzailearen bat, edota dopin farmakologikoko metodoen bat baliatu zuela errendimendu fisikoa hobetzeko edo muskulu-masa handitzeko. Mota horretako substantzien kontsumoaren prebalentzia baxua zen azken 12 hilabeteetan, eta ez zen iristen biztanleriaren % 1era. Zehazki, Euskadiko biztanleen % 0,8k substantzia dopatzaileak kontsumitu ditu azken 12 hilabeteetan, eta % 0,6k azken 30 egunetan.

Substantzien kontsumoa edo metodo dopatzaileen erabilera handiagoa zen gizonen artean emakumeen artean baino, bai bizitzan zehar noizbait kontsumitzearen kasuan, bai azken 12 hilabeteetan edo azken 30 egunetan kontsumitzearen kasuan. Era berean, psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia apur bat altuagoa zen gazteen artean, eta behera egiten zuen adinak gora egin ahala, eta kontsumoa oso baxua zen, batez ere 55 urtetik aurrera. Ikasketamailari dagokionez, eredu ez zen argia, nahiz eta kontsumoaren prebalentziak altuagoak izan bigarren mailako ikasketak zituzten biztanleen artean.


10. koadroa. Substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, sexuaren, adin-taldean eta ikasketa-mailaren arabera, 2017 (%).

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilabeteetan	Azken 30 egunetan
Guztira	2,8	0,8	0,6
<i>Absolutua</i>	46.674	13.862	9.959
Sexua			
Gizonezkoak	4,1	1,2	0,8
Emakumezkoak	1,5	0,4	0,4
Adina			
15-24	2,8	2,0	1,5
25-34	4,1	1,1	0,9
35-54	3,1	1,0	0,7
55-74	1,9	0,1	0,1
Ikasketa-maila			
Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntzako ikasketak	1,9	0,8	0,3
Bigarren mailako ikasketak	3,5	1,2	1,0
Unibertsitate-mailako ikasketak	2,7	0,3	0,3

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentzia edo bizitzan noizbait dopin-metodoak praktikatzea, ia hiru aldiz handiagoa zen gizonezkoen artean (% 4,1) emakumezkoen artean baino (% 1,6). Alde hori mantendu egin da kontsumoaren kasuan azken 12 hilabeteetan (% 1,2 gizonen artean eta % 0,5 emakumeen artean). Era berean, dopatzeko substantzien azken 30 egunetako kontsumoaren prebalentzia gizonen artean (% 0,8) bi aldiz handiagoa zen emakumeen artean baino (% 0,4). Aipatu den bezala, substantzien kontsumoaren edo metodo dopatzaileen erabilerearen prebalentzia handiagoa zen gazteen artean (15-34 urte), eta behera egiten zuen adin horretatik aurrera.

**11. kuadroa. Substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, sexuaren eta adin-taldean arabera, 2017 (%). Adinaren arabera estandarizatutako datuak.**



\* Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2006-2017 eta iNEn 2017ko urtarrilaren 1eko errolda demografikoa.

Bilakaeraren datuek adierazten zuten substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentziak edo dopin-metodoek gora egin zutela 2012ko inkestaren emaitzekin alderatuta, nahiz eta 2017an substantzia mota horren kontsumoak gutxienera izaten jarraitzen zuten Euskadin 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean.

Bizitza osoko kontsumoaren prebalentzia % 0,8tik % 2,8ra igo zen 2012 eta 2017 artean. Era berean, azken 12 hilabeteetan kontsumitu dutela adierazi dutenen ehunekoa % 0,2tik % 0,8ra igaro da bost urte horietan. Azkenik, azken 30 egunetako kontsumoaren kasuan, errendimendu fisikoa hobetzeko edo muskulu-masa handitzeko substantziak kontsumitu zituztela ziotenen ehunekoa % 0,1etik % 0,6ra igo zen. Gorakada mantendu egin zen, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan.

**12. koadroa. Substantzia dopatzaileen kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera, sexuaren arabera, 2012-2017 (%).**

	2012				2017			
	Guztira	Gizonezkoak*	Emakumezkoak*	Ratioa	Guztira	Gizonezkoak**	Emakumezkoak*	Guztira
Noizbait	% 0,8	% 0,6	% 0,9	0,7	% 2,8	% 4,1	% 1,6	2,6
Azken 12 hilabeteetan	% 0,2	% 0,1	% 0,3	0,3	% 0,8	% 1,2	% 0,5	2,4
Azken 30 egunetan	% 0,1	% 0,1	% 0,2	0,5	% 0,6	% 0,8	% 0,4	2,0

\* Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2012-2017

Substantzia dopatzaileen lehen kontsumoaren edo dopin-metodoen lehen praktikaren batez besteko adina 20 urte ingurukoa zen 2017an, batez beste -19,7 urte, batez beste-. Substantzia dopatzaileekin lehen harremana lehenago gertatzen zen emakumezkoen artean (18,8 urte) gizonzkoen artean baino (20,1 urte)

Lehen kontsumoaren batez besteko adinaren banaketari dagokionez, substantziaren bat kontsumitu zuen edo dopin farmakologikoko metodoen bat baliatu zuen biztanleriaren % 44,3k adierazi zuen lehen aldiz 19 urte baino gutxiago zuenean kontsumitu zuela, errendimendu fisikoa hobetzeko edo muskulu-masa handitzeko asmoz.

### 3. Ondorioak

**Psikofarmakoen kontsumoari** dagokionez, 2017an, Euskadiko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 28,7k – 477.000 pertsona baino gehiagok– adierazi zuen psikofarmakoren bat kontsumitu zuela bizitzan zehar, % 15,4k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuela, eta hamarretik batek azken 30 egunetan (% 10,4).

Kontsumoaren prebalentzia handiagoa zen emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. 15-74 urteko gizonen % 20,8k adierazi zuen bizitzan zehar psikofarmakoren bat kontsumitu zuela, % 11,0k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuela, eta % 8k azken 30 egunetan. Adin bereko emakumeen kasuan, % 36,2k adierazi zuen psikofarmakoren bat kontsumitu zuela noizbait bizitzan, % 19,5k azken urtean kontsumitu zuela eta % 12,6k azken hilabeteetan.

Sendagai motari begiratuz gero, esan behar da lasaigarrien, sedanteen edo somniferoen kontsumoaren prebalentzia antidepresiboena baino handiagoa zela. Alde batetik, biztanleen % 27,2k adierazi zuen lasaigarriak edo somniferoak kontsumitu zituela noizbait nerbioak edo antsietatea baretzeko edo lo egin ahal izateko; % 14,3k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zuen, eta % 9,7k azken 30 egunetan. Bestalde, depresioaren sintomak tratatzeko medikamentuen kasuan, Euskadin hamar pertsonatik batek adierazi zuen noizbait (% 9,8) erabili behar izan zuela botika mota hori, % 5,3k azken urtean eta % 3,9k azken hilabeteetan.

Sendagai hauek eskuratzeko bideari dagokionez, mota honetako sendagaiak kontsumitzen zituzten biztanle gehienek medikuntzako profesional baten aginduz bidez eskuratu zituzten. Medikuen agindurik gabeko kontsumoaren kasuak gutxieneakoak ziren. Euskadiko biztanleen % 2,3k aitortu zuen bere bizitzako uneren batean lasaigarriak eta/edo antidepresiboak medikuerreztarik gabe kontsumitu zituela, % 1,0k azken urtean eta % 0,5k baino gutxiagok azken hilabeteetan.

Alde handiak ikusten ziren sexuaren, adin-taldeen eta ikasketa-mailaren arabera kontsumoan, bai lasaigarrien, sedanteen eta somniferoen artean, bai antidepresiboen kontsumoan. Prebalentzia nabarmen handiagoa zen emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, bai kontsumo esperimentalean, bai oraintsukoan eta egungoan, eta gauza bera gertatzen zen agindutako kontsumoaren kasuan nahiz profesional batek gainbegiratu gabe egindakoan.

Bilakaeraren gaineko datuek adierazten zuten agindu medikoa duten psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak gora egin zuela bizitzan zehar, azken urtean nahiz azken 30 egunetan, bai gizonezkoen artean, bai emakumezkoen artean. Errezetarik gabeko kontsumoaren kasuan, ikusten zen kontsumoaren prebalentziak nabarmen egin zuela behera azken hilabeteetan; eta azken urtean, aurreko edizioarekin alderatuta, emaitzak egonkor mantendu ziren gizonezkoen artean eta emakumezkoen artean.

Psikofarmakoren bat kontsumitzen hasteko batez besteko adina 40 urte ingurukoa zen 2017an (38,2 urte gizonetan eta 40,6 emakumeetan). Errezeta medikorik gabeko psikofarmakoak

kontsumitzen hasten zirenak (34,5 urte, batez beste), batez beste, gazteagoak ziren aginduarekiko kontsumoaren kasuan baino (40,0 urte, batez beste). Bi kasuetan, gizonezkoek adierazi zuten emakumezkoak baino gazteago hasi zirela psikofarmakoren bat kontsumitzen.

Pertzepzio sozialari dagokionez, Euskadin hamar pertsonatik seik (% 57,4) uste zuten hilean behin psikofarmakoak kontsumitzeak osasun-arazo gutxi edo batere ez dakarrela, ezta bestelako arazorik ere. Era berean, hamarretik zortzik uste zuten mota horretako sendagaien eguneroko kontsumoak nahiko arazo edo arazo asko dakartzala. Eskuratzeko moduari dagokionez, hamar pertsonatik zazpik (% 66,5) uste zuten Euskadin lasaigarriak, sedanteak edo mediku-errezetarik gabeko somniferoak 24 orduko epean lortzea zaila edo ia ezinezkoa gertatuko zitzaizela.

**Substantzia dopatzaileei** dagokienez, 2017an, Euskadiko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 2,8k –46.600 pertsona inguruk– adierazi zuten substantzia dopatzailearen bat kontsumitu zutela edo dopin farmakologikoko metodoaren bat baliatu zutela beren errendimendu fisikoa hobetzeko edo muskulu-masa handitzeko. Mota honetako substantzien kontsumoaren prebalentzia oso baxua zen azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan, eta ez zen iristen biztanleriaren % 1era.

Substantzia dopatzaileen kontsumoa edo dopin-metodoen erabilera handiagoa zen gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, bai bizitzan zehar noizbait kontsumitzearen kasuan, bai azken 12 hilabeteetan edo azken 30 egunetan kontsumitzearen kasuan. Era berean, psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia zertxobait handiagoa zen gazteen artean, behera egiten zuen adinak gora egin ahala, eta oso baxua zen 55 urtetik aurrera. Ikasketamailari dagokionez, eredu ez zen argia, nahiz eta kontsumoaren prebalentziak altuagoak izan bigarren mailako ikasketak zituzten biztanleen artean.

Bilakaeraren gaineko datuek adierazten zuten substantzien kontsumoaren edo metodo dopatzaileen praktikaren prebalentziak apur bat gora egin zuela 2012ko inkestaren emaitzekin alderatuta, nahiz eta 2017an substantzia mota honen kontsumoak oso bazterrekoa izaten jarraitzen zuen Euskadiko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean.

Azkenik, substantzia hauek aurrenekoz kontsumitzeko edo metodo dopatzaileak baliatzen hasteko batez besteko adina 20 urte ingurukoa zen 2017an –19,7 urte, batez beste–.